

Euskal AEko I+Gko gastua % 11,6 hazi da, eta 2.000 milioi eurotik gorakoa izan da lehen aldiz 2023an

Euskal Administrazio Autonomoak finantzatzen du gauzatutako I+G guztiaren % 25,4


Euskal AEko barneko I+G gastua (Ikerketa eta Garapen Teknologikoa) lehen aldiz 2.000 milioi eurotik gorakoa izan zen 2023an, zehazki 2.002 milioi, Eustaten datuen arabera. Zifra hori % 11,6ko hazkundearen ondotik gertatu da, eta aurreko urtean baino 208 milioi euro gehiagoko gastua ekarri du.

BPGari dagokionez, Euskal AEko barneko I+G gastua % 2,16ra iritsi da 2023an, eta aurreko urtean, 2022an, lortutako 2,07a gainditu du. Datu horiek Europar Batasuna 27ko (EB-27) eta Espainiako azken datu erabilgarriekin alderatzeko, 2022ko datuak erabili behar dira: EB-27n BPGren % 2,27 zen, eta Espainian % 1,44.

Lurraldeen xehetasunetara jaitsiz, ikusten da 2023an erkidegoko barneko I+G gastu osoaren % 45,5 Bizkaian egin zela, % 42,6 Gipuzkoan eta % 11,9 Araban. Lurralde bakoitzeko BPGari dagokionez, gastu hori Gipuzkoakoaren % 2,76 da, Bizkaikoaren % 1,94 eta Arabakoaren % 1,60.

Barneko I+Gko gastua Euskal AEn. Egikaritze-Sekoreak.

Mila euro



Barneko I+Gak 23.300 pertsona enplegatu zituen Dedikazio Osoko Baliokidetzan (DOB) 2023an, eta % 7,1 gehitu zen aurreko urtearen aldean. Era berean, ikertzaileak 16.305 izan ziren Dedikazio Osoko Baliokidetzan (DOB): hauek ere % 7,1eko hobekuntza izan zuten. Bi zifra horiek ere (DOBko pertsonen eta ikertzaileen guttizkoa), I+Gko gastua bezala, zifra errekorrak dira.

Euskal AEn egindako barneko I+G gastuaren % 77,2 enpresen sektoreak egin zuen

Barneko I+G gastuaren exekuzio-sektoreari dagokionez, gehienak, % 77,2 (1.545,7 milioi euro), Enpresek egin zituzten; % 16,4 (328,3 milioi), berriz, Goi-mailako irakaskuntzak, eta gainerako % 6,4a (128,5 milioi), berriz, Administrazioaren mendeko zenbait erakundek. Aurreko urtearen aldean, Enpresek % 11,6 gehitu zuten I+Gko gastua, % 10,9 Erakundeek eta % 11,5 Goi-mailako irakaskuntzak.

I+Gko barne-gastuak, egikaritze-sektoreen eta fondoan jatorriaren arabera (mila euro). 2023

	Guztira	Administrazioa	Goimailako irakaskuntza	Enpresak	IAGEP	Atzerria
Guztira	2.002.465	680.974	35.488	1.110.915	15.229	159.859
Enpresak eta IAGEP	1.545.707	337.362	1.370	1.081.858	3.607	121.511
Herri-administrazioa	128.479	114.592	194	7.230	1.683	4.779
Goi-mailako irakaskuntza	328.279	229.020	33.924	21.827	9.939	33.569

I.P.S.F.L.=Instituciones IAGEP = irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak

Data 2024ko Azaroaren 15a

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

Barneko I+G gastuaren finantzaketaren ikuspegitik, Enpresek 1.111 milioi euro bideratu zituzten ikerketara, 2022an baino % 10,7 gehiago. Zifra hori finantzaketa osoaren % 55,5 da, baina finantzatutako guttizkoan duen partaidetza ehuneko 0,4 puntu jaitsi da aurreko urtearen aldean. Hala ere, finantzaketa-iturri nagusia izaten jarraitzen du. Finantzaketa publikoak, bestalde, 681 milioi eman zituen, aurreko urtean baino % 11,9 gehiago, eta barneko I+G gastu osoaren % 34,0 da.

Funtsen gainerako jatorria Goi-mailako irakaskuntzan dago (35,5 milioi), Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatueta (15,2 milioi) eta Atzerrian (159,9 milioi). Hiru zenbateko horiek gastu osoaren gainerako % 10,5 dira.

Finantzaketa publikoaren jatorriari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekarpena da nagusi (508,9 milioi). Ekarpen hori, aurreko urtearen aldean % 6,8 igo ondoren, administrazio publikoak 2023an finantzatutako guttizkoaren % 74,7 eta gure erkidegoan gauzatutako I+G guztiaren % 25,4 da.

Bestalde, Administrazio Zentralak (135,6 milioi) % 29,5 handitu du bere finantzaketa aurtan, eta Administrazio Publikoek finantzatutako guttizkoaren % 19,9an kokatu du bere partaidetza. Azkenik, Aldundiek eta Toki-administrazioek (36,5 milioi) % 5,4rekin parte hartu dute, eta ekarpena ere % 34,7 handitu da aurreko urtearen aldean.

Dedikazio osoko **I+Gko enplegatuak** 23.300 izan ziren, % 7,1 hazi ondoren. Exekuzio-sektoreka: 16.452 pertsona Enpresetan (% 6,7ko hobekuntza eta guttizkoaren % 70,6); 5.345 Goi-mailako irakaskuntzan (+% 7,4 eta guttizkoaren % 22,9); 1.502 Administrazio Publikoan (+ % 11,7 eta guttizkoaren % 6,4). Lanbide-kategoriari dagokionez, ikertzaileak 16.305 dira (+% 7,1); teknikariak 5.287 (+% 9,8); eta, azkenik, laguntzaileak 1.708 (+% 0,6).

I+Gko langileen % 37,3 emakumeak izan ziren 2023an

2023an, dedikazio osoko I+Gko langile guztien % 37,3 emakumeak ziren. 2022an I+Gn aritu ziren emakumeen kopurua baino % 8,2 gehiago dira, eta 2023an 8.688 dira guztira. Langile guztien artean duten pisua lau hamarren igo da aurreko % 36,9tik, eta, denbora-ikuspegi zabalago batetik, haien pisua 3,9 ehuneko-puntu igo da 2010. urtearekiko, eta 10,7 punturaino 2000. urtearekiko.

I+Gren exekuzio-sektorea kontuan hartuta, ikus daiteke Enpresen sektorean eta Goi-mailako Irakaskuntzan dagoela emakumeen presentzia nabarmenena kuantitatiboki: 5.116 eta 2.688 emakume, hurrenez hurren, eta 884 emakume Administrazio Publikoaren sektorean. Hala ere, termino erlatiboetan, Administrazio Publikoan emakumeak langile guztien % 58,8 dira, Goi Mailako Irakaskuntzan % 50,3 eta Enpresetan % 31,1.

I+Gko gastuaren eta langileen (DOB) bilakaera Euskal AEn. 2010-2023

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
I+Gko gastuak														
Guztira (milioi eurotan)	1.360,3	1.366,2	1.372,9	1.316,8	1.289,8	1.273,2	1.290,9	1.363,2	1.423,4	1.481,4	1.490,0	1.646,9	1.794,7	2.002,5
Urteko gehikuntza (%)	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6	4,4	4,1	0,6	10,5	9,0	11,6
Langileak (DOB)														
Guztira	17.532	17.879	18.682	18.280	18.535	18.217	17.898	18.577	19.274	19.619	19.511	20.804	21.746	23.300
Urteko gehikuntza	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8	3,8	1,8	-0,5	6,6	4,5	7,1
Ikertzaileak (DOB)														
Guztira	11.071	11.283	11.772	11.959	12.030	12.089	11.916	12.608	13.165	13.520	13.629	14.367	15.230	14.612
Urteko gehikuntza	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8	4,4	2,7	0,8	5,4	6,0	7,1

DOB= Dedikazio Osoko Ballokidetzak

Data 2024ko Azaroaren 15a

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueren buruzko estatistika-I+G

OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten lagundu duten enpresa eta erakunde guztiei. Informazio-bilketa 2024ko apiriletik urrira bitartean egin da, egindako ahaleginagatik. Horien laguntzarik gabe ez zen posible izango.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62